


Aretxabaleta,  
1993ko urtarriak 28

# Aretxagazeta



Gabeko  
martxa

• Afizioak:  
*Jesus Mari Urkia*

• Antzerki  
*topaketak*

• Pertsonaia:  
*Pedro Galdos*



"Norberak txikitan bere etxean jaso duen euskaraz harro sentitu behar du."

## Hemengo euskara zatarra omen

Duela zenbait egun ezezaguna nuen atxalbatar batekin suertatu nintzen lan bat egiteko. Hizketan hasi eta 10 hitzetatik 9 erderaz egiten zituenez, honen zergatia galde-tu eta honako erantzun hau jaso nuen:

- "Nik bakarrik hemengoak dakit eta zatarrak denez oso gutxi eitzen dot".

Zoritzarrez ez zen honelako zerbait entzuten nuen lehenengo aldia, oraindik orain ere oso zabaldua bait dago euskalki batzuk

beste batzuk baino politagoak zirenean ustea.

Lerro hauek idazteko aukera eman zaidala aprobetxatuz, egungo egunean honela pentsatzen dutenei zuzendu nahi nizkieke.

Norberak txikitan bere etxean jaso duen euskaraz harro sentitu behar du, ez du euskara baztertu eta erderara jo behar berea zatarra kontsideratzen duelako.

Zenbaitek komunikabideetan erabilt-

zen den euskara du eredu. "Batua" han hemenka euskaldunok elkar ulertzeko sortua da. Batak ez dauka zertan bestea bazterturik. Biak ditugu beharrezko.

**Arantxa Aiestaran**  
Udal Euskaltegiko zuzendaria.

# Zer daukazu esateko negu honetako eguraldiaren gainean?



**Itziar Mendieta**  
(Langilea)

Eguraldi hau ez da normala, baina niri gustetan zait.

Normalena orain euria egitea izango litzateke, baina kalean ibiltzeko hau hobea da.



**Eduardo Altube**  
(langiea)

Aurtengo eguraldia nahiko hotza dela uste dut, orain behintzat.

Orain elurra egin beharko luke, baina ez badu egiten hobeto, niri ez zait gustetan.



**Julio Ganado**  
(langilea)

Negu honetan oso eguraldi ona egiten ari da. Nire ustez euri gehiago egin beharko luke, sikute haundiak daude leku askotan eta.



**Mirari Antoñena**  
(Ikaslea)

Ez da oso normala aurten egiten dabilen eguraldia. Neguan edurrer, euria eta eguraldi txarrago egin beharko luke.

## KARTAK

### Pasealekua

Egunero bazkal ostean paseotxo bat ematea ez da txarto etorten eta asko gara bueltatxo bat ematen dugunak.

Lehen trenbidea zen bidetik joaten gara Eskoriatzaruntz. Osopaseo polita da eta lasai ibiltzeko modukoa.

Azken aldi honetan Mendiolako bidearen eta Errota - Barriren artean dagoen bide zatia pasa

tzea ezinezkoa egiten zaigu. Hara helduaz bat, usain txarra somatzen da. Eta gainera bide eskinetan aspaldian moztu bariko sasiak daude eta oso txarto dago pasatzeko.

Egunero hortik ibiltzen garen emakumeok bide zati hori konpontzea eskatzen dugu.

**Pasietan dugunak**

### Eskerrak emanenez

Atxabaltako amnistiaren aldeko komiteak, lerro hauen bitartez, pasaberri den Gabonetako kanpaina zehar jasotako laguntza eskertu nahi luke.

Milaesker, beraz, baitxistorra eta materiale salmenta postuetara

hurbildu zinetenei, eta baita, urtero bezala, zuen diru laguntza eskeini duzuen dendari eta tabernei.

**Amnistiaren aldeko komitea**



Alkatea Juan Arregiri herriko intsignia jarten.

## Juan Arregiren omenaldia

Urtarrilaren 17an, eguerdiko 12etan heldu zen Juan Arregi Atxabaltara. Eliza aurrean Loramendi dantza taldeak eta txistulariek harrera egin zioten. Dantzariak egingadako arkupetik sartu ziren denak elizan.

Meza Atxabaltako abesbatzak kantatua izan zen. Mezatan eskerrak eman zitzaizkion Juani eta "zorionak" kantatu zuten abesbatzakoek.

Gero, udaletxe aurrean Lazkanok eta Aintzane Aizpuruak aurraskua dantzatu zioten eta segidan udaletxeko pleno aretora igo zuten. Alkateak Juani eta antolatuta zutenei eskerrak emanda gero, herriko insignia ipini zion. Insignia hori ematen den 3. a da. Aurretik, bata, Anton Martinez de Agirri eman zitzaion

idazkari egondako urte guztiengatik eta bestea Karintiako Lehendakariari. Gero Juaneke berba egin zuen, Atxabaltako herriari eta alkateari eskerrak emanez egindako harreragatik.

Hori denori bukatuta gero, ordu biak aldera Uratz Alde Elkartean jendea batzen hasi zen eta mahaietan jarten. Jende asko elkartu zenez, asko izan ziren leku barik geratu zirenak ere.

Bazkaldu bitartean Juanekein barriketalditxo bat izan genuen. Esan zigunez, espero zuen omenaldia, lan domina eman ziotenean zerbait aitatu ziotelako.

Atxabalta zelan ikusten duen galdeztean hauxe esan zigun: " Ondo doa, gero eta haundiago da.

Nire denboretan medikuak bakarrik zeukan karrera eginda". Orain barriz, denek ikasten dute. Guk lehen ez geneukan ezer, esperientzia apurka-apurka hartzen zen. Orain karrera eukita esperientzia hartzea samurragoa da".

Enpleguak sortu guran dabilen gazteendako kontseilu batzuk eman zituen: " Ikasi eta lan egin ahal den guztien, lan egin barik ez dago ezer eta. Lehenengo ikasi eta gero horrekin esperientzia hartu behar da, biekin batera asko egiten da".

Bazkalostean bertsolariak izan ziren, Arantzazu Loidi eta Saioa Arando. Horien ondoren Atxabaltako abesbatzaren ekitaldi emoziozantea izan zen. Abesbatzakoek "Zorionak" kantatu zioten eta bitartean bertso batzuk bota.

Ondoren, Elkarte

guztien partetik erregalatu bat jaso zuen, Atxabaltako eta bere baserriko, Malkorreko, kuadroa.

Gero diskurtsoak izan ziren, batetik alkatearena eta gero Juanekearena. Juaneke diskurtsoan honako hau esan zuen: " nire herria larregi dabil egiten nigatik, nik zerbait egin nuen, baina herria %95a gehiago dabil egiten. Hori ikusita, uste dut zerbait egingo nukeela eta ez dakit zela eskertu. Omenaldi honekin sentitzen dudana poza haundia da eta gehiegizkoa dela uste dut". Ondoren Pello Errotaren bertso bat bota zuen.

Agirianok, Gobernuko ordezkariak, beste poesia batzuk eskainita gero abesbatzak azkenean kontak kantatu zituen.

Abesbatzarekin denek Agur jauna kantatu, amaiera eman zitzaion omenaldi honi.



Bazkal orduan giro polita, bertsolari eta guzti.



## Areantzara ura eroateko obrak

Otsailaren lehenengo hamabostaldian emango zaie hasiera Areantzara ura eroateko obrari.

Obrak Etxaluzetik Mitarte Garairanoko tartean egingo dira.

Hodidak dentsitate handiko polietilenoazko izango dira.

Obrak hilabete bi barru amaituko dira eta presupuestua 8 miloi ingurukoa izango da.

## Lanbide Eskolako kirol instalazioen konponketa

Lanbide Eskolan egingo diren obra horien bidez kirol pista tapatu gura dira estalki batekin. Hau egurrezko zutabeen bidez egingo da.

Aterpe honek orain

dauden kirol pista guztiak tapatuko ditu.

Obra horren presupuestoa 18 miloi ingurukoa da eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak finantziatuko du.

## Kanposanturako 10 miloi

Diputazioko kontsejuak Atxabaltako Udalari 10 miloiko subentziora eman dio. Diru hau hileta zerbitzuak hobetzeko Foru Aldundiaren plana dela eta

eman da.

Subentziora jasoteko kondizio onak betetzen zirela konponketa horrek eta horrek ere zerikusia handia izan du.

## Emergentziako plangintzaren ikerketa

Udalak Atxabaltarako emergentziako plangintza egitea eskatu du.

Estudio honekin lortu gura dena edozein emergentzian jarraitu behar ko liratekeen pausuak agertzea da. Egoera larri batean herriko pertsonen edo materialeen eragiten dienean, bakarrik eraman go da plan hau aurrera.

Ikerketak honako puntuak aztertuko ditu:

- Herriaren deskribapena (erabileraren mapa).
- Arriskuen azterketa.
- Errekurtsoen eta baliabideen katalogoa.
- Kalteen azterketa.
- Organizazioa.
- Plangintza temetikoak.
- Formazioa eta zabal-tzea.
- Errekurtsoen mobilizazioa.

## Plazako eskailerak

Plazako eskailerak apurta zituztela eta Gobernu Batzordeak konpontzeko presupuestoa onartu du. 200 milatik gorako diru kopuru hau beste gauza batzuk egiteko zeukaten.

• Kurtzebarri Eskolako Guraso Elkartearen azken batzarrean, batzordearen konposaketa aldatu zen. Lehendakaria Jesus Agirre da eta lehendakari ordea Carlos Gutierrez.

• Lucio Garay enpresan hiru hilabeteko lanpostu erregulazioa eman zaie langileei. Enpresa honek 57 langile ditu, 40 fijo eta 17 aldizkako. Horietako 4 abenduan kontratua bukatzean kanporatuak izan dira eta beste 3ri martxoan bukatzen zaie.

• Eguako-txean, 29an, Elkarriko Gipuzkoako ordezkariak Udaltxeko ganbaran 7.30etan hitzaldi bat emango du. Denok gonbidatuta zaudete.

• Joan den domekan, 24ean, San Migelauzoko 11. zenbakian, 1go ezkerreko etxea erre zen.




## Hemen ere tanborrada

Urtarrilaren 22an, nahiz eta San Sebastian eguna pasatuta egon, tanborrada izan genuen Atxabaltan.

Udal Eskolaurreko umeez, irakasleekin batera, Herriko Plazan goi-

zako 11etan Sarriegiren kantak jo zituzten.

Nahiko jende elkartu zen, umeen guraso, osaba-izeko eta aitonamonak batez ere. Tanborrada txikia ekintza haundia izaten da.



## Kurtzebarri Eskolako Antzerki Topaketa

Antzerkia Kurtzebarri Eskolan betiko bitartekoa izan da euskararen ikas-prozesuan erabilera bultzatzeko.

Urtez urte hizkuntz programetan toki atsegin bat gorde izan zaio alor horri. Horrela izanda ohitura bihurtu da gure eskolan urtero emanaldiak prestatzea, nahiz eta beti ikasleei eskaintzeaz konformatu izan diren (hemengo eskola edo beste herri batzuetakoei). Aurten ordea, antzezleen gurasoei eta zergatik ez, atxabaltar guztiei luzatuko diete euren gonbidapena.

Kurtzebarriko Antzerki Aretoko eskeintza dastatu gura duzenontzat, arratsaldeko 6.30etan, honako egun hauetan zabalduko ditu ateak.

Antolaketaren ardurarok 8. mailako ikasleena

izango da. Edozeinek ordaintzeko moduko sarreratxo bat kobratuaz lkasbidaia egiteko laguntza lortu dezaten.

### Otsailak 10:

**Bertoak:** Xalbadorren heriotza, Nafarroa oinez. 8. maila.

**Kantua:** Dragoi Bola. 1. maila.

**Antzerkia:** J.M Iparagirre. 6. maila. Josta-ilu zaharra. 4. maila.

**Dantza:** Orpo punta. 3. maila.

**Abestia:** Giriguai. 3. maila.

### Otsailak 11:

**Dantza:** Bals. 6. maila.

**Antzerkia:** Estatua Mugikorra. 5. maila.

**Bertoak:** Markesaren alaba, Bautista Bassterretxea. 8. maila.

**Antzerkia:** Inspektorea dator. 6. maila. Danbolari magikoa. 4. maila. Talentu bila. 7. a.



## Hondakin Zerbitzuen Gida

Deba Garaiko Mankomunitateak zakarrak batzeko zerbitzuak egoki erabiltzeko gida kaleratu du.

Gida honen helburua herritarrek ingurugiroaz kontzientziaztea

hartzea da.

Bertan hainbat gomendio agerketan dira: zakarra batzeko, hondakin haundien batzea, beira, paper, kartoi eta pilen batzeari buruzkoak.

Negu aldean, baserrietako txarri boden berri izaten dugu. Urtero, etxean hazitako edo, azken aldi honetan, kanpotik ekarritako txarriak hiltzen dira. Jesus Mari Urkiak, urte asko daroa txarriak hiltzen baserri baserri. Txarri hilketa ilbeheran egitea komeni da, txarrikiak ondo kontserbetako.



## Jesus Mari Urkia, baserri txarria hiltzen

### • Zenbat urte daroaz txarri hiltzetan?

• 18 urte nituenetik. Aurretik, osabak hiltzen zituen, baina fabrikara joan zen eta neu hasi nintzen. Froga egin eta ondo urten zuen. Horrela, ondoko baserrietan jarraitu nuen.

### • Zelaikasizenuen?

• Eugenio harakinak, Intusian hiltzen zuenean txarria, ikustera joaten nintzen. Ondo begiratzen nuen kutxiloa non eta zela sartzen zuen. Poliki-poliki hasi eta hobetuaz joan nintzen.

### • Gatxa da, badu trukorik?

• Ez, behin hiru, lau bidereginez gero. Lehen, esaten zen txarria hil eta gero jaiki egiten zela, baina, niri ez zait sekula horrelakorik pasatu.

Nik ikusita daukat, kutxiloa lepoan sartu beharrean, besapean sartzen. Orduan txarria ez da hiltzen.

### • Zenbat denbora behar da txarria hiltzen?

• Ordubete edo. Denbora asko pasetan da txarria hona ekarri, hara eroan eta abar. Hil, 5 minututan hiltzen da.

### • Kontatu jarraitzen diren pausoak.

• Hilda gero, lehenengo erre egiten da, uleak erretako eta baserriko lehengo erara kontserbetako. Gero, hankak eta barrukoa kentzen zaizkio, ondo garbitu eta hurrengo egunerarte, eseki egiten da. Hurrengo egunean, zatitu egiten da, kontserbetan jarteko.

### • Zenbat hiltzen dituzu urtean?

• 20etik 25era, urtean. Azaro bukaeratik martxoko lehenengo asteterarte. Batzuk, edozein egunetan hiltzen dute, baina kontserbetako, hobe da ilbeheran hiltzea. Bestela, ez dira hain ondo kontserbetan.

### • Hemen inguruan asko zabiltzate txarri hiltzetan?

• Ez, neu ibiltzen naiz gehienbat. Nire koinatua ere ibiltzen da horretan, baina etxean eta lagunartean mugitzen da gehienbat.

### • Anekdotarik baduzu?

• Bueno, behin txarria hiltzen hasi eta salto egin zuen eta gero harrrapatu egin behar. Beste batean, Arabara joan

nintzen txarria ekartera eta, ez dakit mahaia zaharra edo txarria handia zan, baina mahaia apurtu egin zen.

### • Jarraitzailerik izango duzu?

• Ez dute gogo haundirik. Geroko ez da aukera haundirik ikusten. Harakinek ez dute etorri gura, denbora asko galtzen delako, baina gaur gauzak dauden moduan hasi daiteke norbait.

### • Aldaketarik egon da hasi zinenetik?

• Bai, lehen jai handia izaten zen txarria hiltzea. Denak desietan egoten ziren egun hori noiz ailegatuko. Ez zen oraingo moduan, urte guztian okela jateko aukerarik izaten. Gaur egun, edozein garaitan jaten dugu ondo.

**Astebukaera ailegatzeko desietan egoten gara, baina zer egiten dugu astuburuetakogabetan?**

**Atxabaltan, normalean, tabernarik taberna poteak hartzen ibiltzea da. Batzuk, ez dute gehiagorik behar, beste batzuk barriz, beste ekintza batzuk botatzen dituzte faltan eta herri-  
tik kanpo joaten dira.**

**Tabernariak gustora daude atxabaltarrekin eta negozio ona ei da.**



## Gabetan tabernaz taberna

Atxabaltako gabeen, giro desberdinak bereizten ditugu. Alde batetik, Mitarte kale inguruan, "tontodromoa" izenez ezagutzen den Arlutz, Izotz, Kixkor, Haizea eta Urbaltz tabernak osatzen dutena. Hemen gehienbat jende gaztea mugitzen da. Bestetik, Herriko Plaza inguruan Artano eta Express giro lasaiko tabernak dira. Horietaz aparte Gaztetxea dago eta azken tragoa hartzeko Azken Bazter.

Tabernarien ustetan zapatu gabetan eguakotetan baino jende gehiagomugitzen da. Gehienbat 18 - 35 urte bitarteko gazteak ibiltzen dira, gazteak eta gaba elkarrekin

ondo konpontzen ei dira.

Gaba hasieran, askokafea hartzeko taberna lasaiak aukeratzen dituzte eta gero martxa bila "tontodromo" ra joaten dira.

Alde lasaiko tabernarien ustetan euren bezeroak kafea hartu, berba egin eta batzuetan partida botatzen egoten dira. Gehienbat kafeak eta kopak (patxarana) hartzen dituzte eta edadez helduagoak dira. Jaietan, Karnabaletan, Gabon Zaharretan, Andramaixetan eta abar, lasaitasun hori alde batera utzi eta martxa giroa nagusitzen da. Goizeko ordu dubi terdiak arte egoten dira zabalik eta ez ei dute

**Gabeen giro desberdinak daude. Batetik, Mitarte inguruan, martxosoa eta bestetik, Herriko Plaza inguruan, lasaiagoa.**

zarataz arazo haundirik izaten.

Bestalde, "giroa musika motak jarten du". Taberna horiek musika lasaia edo tabernariak euren gustokoa jarten dute. Esan digutenez "jendeak ez digu musika mota konkretu bat jarteko eskaketan". Gainera, emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasunak ikusten dituzte: "neskek ez dute alkoholik edaten edo gutxiago behintzat. Kafea, mostoa eta horrelakoak hartzen dituzte".

"Tontodromo" an gazteagoak ibiltzen dira, segun zein lekutan gazteegiak. Horien artean giro desberdinak bereiztu ditzaiegun, musika aldetik behintzat.

Arlutzen, Izotzen eta Urbaltzen euskal musika heavya entzuten da: E.H. Sukarra, Su Ta Gar, Urtz, Barricada eta abar. Bestalde Kixkorren eta Haizean rock inglesa.

Jendeak euren gustoko musika eskaketako ohitura du. Zuritoak, kañak eta kalimotxoak edaten dira eta ez da nesken eta mutilen artean desberdintasun haundirik igarten edari kontu horietan.

Taberna horiek beranduago ixten dituzte ateak, 3.30ak aldera edo asteburu normaletan, jaietan ordu-  
tegia luzatu egiten da goizalderarte.

Ordu-tegiak direla eta taberna barruko musikaren bolumenagatik arazo ugari izaten dituzte inguruko



etxeetan bizi direnekin.

Hala ere, tabernari baten ustetan " gaur egun eta guk ondo pasetako daukagun moduz oso gatxa da arazorik ez eukitzea. Baina uste dugu lau egun besterik ez direla urtean zehar".

Gazteengana ere jo dugu euren gustoko jakin guran. Edadearen arabera 18 - 21 urte ingurukoak etxetik gabeko 9.30ak aldera urten eta 3rak aldera bueltatzen dira. Arlutz eta Urbaltz tabernetako giroa gehiago gustetan zaie eta gaba " tontodromo" ko tabernetatik bueltaka pasetan dute. Bertako musika erakargarriagoa zaie, gogorragoa delako. Hauek asteburuan 2.500 - 3.000 pezeta tartean gastetan dute, zuritoak, kañak eta kalimotxoetan hartuz. Tabernetako ordutegiekin konforme daude, beharbada, jaietan beranduago itxi beharko liratekeela uste dute.

Hauek hauxe esan zituzten:

" Atxabaltan beste kuadrila batzuekin harremanak izatea samurragoa da, ez gara hain itxiak Arrasate eta beste herri batzuetan bezala. Han bakoitzak bere lagunekin bakarrik berba egiten du".

Bestalde 24 urtetik gorakoek gusto desberdinak dauzkate. Batetik, martxa gogoia izaten dutenak eta " tontodromo" an bueltaka ibiltzen direnak eta bestetik, beste

ekintza mota batzuk egitea gurago dutenak.

Horietako batzuk, kafea lasai hartzea gustoko dute Artano edo Expressean, han lasai berba egin eta martxa bila tragu batzuk hartzera jende gehiena dagoen lekura igo.

Edade hauekakoak tabernaz taberna ibiltzeaz gain beste ekintza batzuk ez egotea salatzen dute. Herritik kanpora, antzerkietara, zinera, neskatan eta mutiletan joaten dira. Batek hau esan zigun: " tabernaz taberna ibiltzea nahiko aspergarria da. Herria txikia da, ez dago antzokirik eta zinea urte erdian bakarrik egoten da martxan, ni askotan joan naiz herritik kanpora".

Hauek, tabernen ordutegiekin ados daude gabekoak ixten direnean goizean zabaltzen diren jarraitu daitekeelako. Gainera edadean aurrera joan ahala diru aldetik ere



**Batzuk tabernaz taberna ibiltzeaz gain, beste ekintza mota batzuk botatzen dituzte faltan.**

kantitate haundiagoak ibiltzen dituzte esku artean.

Beraz, tabernariak oso gustora daude euren bezeroekin eta bezeroak tabernetan egoten den giroaz. Norbaitek emakumezko bezeroak gurago ditu: " gutxiago berba egiten dute, mahaian jarri eta ez dute inor molestetan. Formalitatea eskaketan dut batez ere".

Badirudi Atxabaltako giroa benetan jatorra dela, denak horretan ados daude eta. Jakin guran gelditu zaigun puntu bat, ea Atxabaltako gabeen ligetan den jakitea da. Beharbada hurrengo batean gai interesgarri hori aztertuko dugu. Itxura denez, askok urtetan dute herritik kanpora suerte hobearen bila.

Atxabaltan oraindik mantentzen da herri txikitako konfidantzako giroa, hori gabeen ere igartzen da. Jarraituko ahal du horrela!



"El Leon" gailurrean, irailaren 26an.

## Pedro Galdos, abade bat puntarik punta

Asia aldean, irailaren 25ean Inñurategi anaiek Everestera igo zuten egun berean, Hego Ameriketako beste atxalbatar bat, Pedro Galdos Venezuelako "El Leon" gailurrera igoten hasi zen eta hurrengo egunean ailegatu.

Pedro Galdos, Jesuita, 18 urte zituenean Venezuela aldera joan zen eta bertan 40 urte inguru daroa. Mendizale amorratua, Caracaseko "San Ignacio de Loyola" ikastetxe haundiaren zuzendaria da. Ikastetxe horrek 3000 ikasle inguru

ditu eta mendi urteara asko antolatu ditu eta mendi elkarte bat sortu dute.

Oso ezaguna da hango mendizaleen artean, Venezuelako mendizaleen zabaldu zuelako. Horrela gaur egun goi mailan ibiltzen diren mendizaleak aita Galdosekin hasitakoak dira, ikastetxe horretako elkarteak.

Mendi gailur askotara igo du azkeneko urteetan, baina irailaren 26an bere ametsik haundiena egin zuen, "El Leon" (4.743 m)

gailurrera igo zuenean.

Horrela, "El Diario de Caracas" egunkariak abenduaren 17an hau xedatu dio: "ilusio berezia nuen nire 5. Sai Zuria egiteko, nire bizitzako desiorik haundiena beteteko: Nevada Mendikateko 5 gailurretan meza ematea".

Irailak 25ean Meridako Nevada Mendikateko "El Leon" gailurrera igoteko asmoz Pedro Galdos, beste bi mendizalerekin urten zuen. Eguraldiak ez zien laguntzen, euria, edurra eta haize haundia egiten zuen. Gaba haitz baten inguruan kokatutako dendan pasatuta gero, hurrengo eguneko goizeko 10.15etan berak esaten duenez: "nire bizitzako momenturik alaiena ailegatu zen, Ne-

vada Mendikateko 5 gailurretan meza ematea".

Mendikate honetako gailurrak urte desberdinetan egin ditu.

- 1970an, Humboldt (4.942 m).

- 1973an, Bolibar (5.002 m).

- 1973an, La Concha (4.992 m).

- 1973an, El Toro (4.922 m).

- 1975ean, Bompland (4.883 m).

Azkenak, "El Leon" irailak 26an, Bera da gailur guztietan meza eman duen lehen apaiza.

Galdostarrekjoera berezia daukate munduan zehar ibilteko. Kristautasuna tarteko dela, Pedro Nevada mendikateko 5 gailur altuenetan izan da eta bere anaia Inazioindian zehar dabil.

Oharra: Informazio hau abenduaren 17an "El Diario de Caracas" egunkarian agertu zen.



Pedro Galdos, atzean Bolibar gailurra duela.

Igor Arenaza 19 urteko atxabaltarra aurtengo tenporadan, Bilbao Athletic 2.A mailako ekipoa partidu batzuk jokatu ditu. Bilbon 3 urte daroa Bilboko talde desberdinekin entrenatzen. Bere ametsik haundiena lehenengo mailako taldean jokatzeko da. Berarekin izan gara bere asmo eta esperientzien berri jakiteko.



## Igor Arenaza, San Mamesen jokaketan duen atxabaltarra

### • Noiz hasi zinen futboleko jokaketan?

• Ni betidanik ibili naiz futbolean, hasieran Almeneko ekipoa eta gero Atxabaltakora. 15 urterekin Bilbora joan nintzen. Hemen Goikoetxea eta Uriarterekin ibili naiz.

Aurten Sub 19ko taldean nabil, baina Bilbao Athleticeko taldearekin ere jokatu ditut partidu batzuk.

### • Zein posiziotan jokaketan duzu?

• Leku askotan jokatu dut, baina gehienbat aurrean. Orain "media Punta" jarri naute. Bartzelonako ekipoa Bakerok daukan posizioan.

### • Zela eroaten dituzue ikasketak eta entrenamenduak?

• Normalean goizez klasera joaten naiz eta gero arratsaldéz entrenatu.

Azkeneko aste hauetan gehiago entrenatu behar izan dut. Baina normal nabilenean, biak ondo eroan ditzaket; hala ere tendentzia futbolera daukat.

### • Zela ikusten duzue zeure burua ekipoa?

• Nire ekipoa ondo, baina Bilbao Athleticen nahiko gazte. Bertan dagoen jendeak gaztea izan arren, esperientzia haundia dauka.

### • Ze asmo daukazu gerorako?

• Gora igo eta hortik bizi banaiteke, ondo. Orain Gerrero moduan edo, bera da denon idolo barria.

Nire asmorik haundiena datorren urtean Bilbao Athleticen egotea da.

### • Zeintzuk dira zure ezaugarriak?

• Buruaz ondo eta eki-poari indarra ematen diot. Fisikoki ondo nagoela uste

du eta teknikoki ere ez naiz makala.

Daukadan defektoa ezkerreko hanka da.

### • Ze alde dago Atxabaltako eta horko eki-poen artean?

• Bilbon teknika gehiago lantzen da. Bakoitzak bere baloia dauka teknika ondo lantzeko. Baina Atxabaltan asko lagundu zidaten nire ekipokoek eta entrenadoreek.

### • Zer euki behar da Futbolista ona izateko?

• Gustatu egin behar zaio norberari eta asko saiatu. Sekula ez pentsatu atzean geratuko zarenik, aurrera jarraitu, nahiz eta gauzak txarto urten.

### • San Mamesen jokatzeko ze inpresio egin zizun?

• Inpresio haundia. Beteta ez egon arren errespetua ematen du.

Atxabaltako Kirol Elkartearen, U.D.A.n, datozen bi urtetarako zuzendaritza aldatzeko hautagaiak aurkezteko epea zabalik dago. Izenak martxoaren 20rako helbide honetara bialdu behar dira: 10 postakutxara.

Atxabaltako futbol tadeetan denerako emaitzak izan dira. Preferente mailakoek Eskoriatzakoen aurka jokatu zuten Almenen eta 1 - 0 emaitzaz galdu.

Errejonalekoek berdindu egin zuten. Azkenik, neskek 3 - 2ko emaitzaz irabazi zuten. Talderen batek behintzat irabazi zuten.

Kiroldegiko bazkide izan gura dutenak, bertatik pasa daitezke. Goizean 9.30etatik 11.30etara eta arratsaldean 6etatik 8etara



1955ko urtarrilaren 9an U.D.A-k Atotxan bere lehenengo partidua jokatu zuen Errenteriako Touring-en kontra. Atxabaltatik 3 - 4 autobus joan ziren animatzera, baina ez zen nahikoa izan, 3 - 0 galdu zuten eta. Argazkia bertan ateratakoa da eta hauek izan ziren jokalariak: Zutik: Rubio (Altube ), Barrutia, Azurmendi ( entrenadorea ), Deunoro Bengoa, Sabino, Jesus Mari ( Porru ), Arriola eta Inda.

Belauniko: Paiku ( masajista ), Axpe, Igartua, Iriarte, Ane Miren Azurmendi (entrenadorearen alaba ), Andoni eta Olibares.

## ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Non dago?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Grezia)



Aurreko lehiaketaren irabazlea ARANTXA LEJARRAGA izan da. Zorionak!

Erantzuna: .....

- Izen-abizenak: .....

- Helbidea: .....

- Tfnoa: .....

# Ate adina maratila



J.J. Aretxaga

Hamabost egun hauetan albiste nagusietatik aparte gertatu diren gauza txikiek badaukate ezaugarri komun bat: Ez daukatela elkarrekin zerikusirik. Adibidez: Kutxan **Andoni Antxiaren** partez **Roberto Urreta** jarri dute zuzendari. Eta horrek ez dauka zer ikusirik herriko misiolari bat egun batzuk pasatzera etortzearekin. Apotza-Etxebarriko **Jose Anjel Unanue** marianista da eta urte mordo bat Kolonbian daramatza. Noizean behin etorten da bere jaioterria bisitatzera, azkeneko orain dela 3 urte egon zen eta beste hiru urte egingo ditu Aretxabaletara etorri barik. Oraindik gure artean dago, baina hila-ren 31n itzuliko da Kolonbiara.

Misiolariaren bisitak ez daukà zerikusirik Urkulun jende asko egotearekin. Baina egia da azken asteburua pasada bat izan dela Urkulun. Jende larregi. Eta honek ez dauka zerikusirik gripe epidemiarekin. Gripeak ez du eta jendea Urkulura eramaten. Baina egia da epidemiarena ere. Batez be eskoletan igarten da gripearen golpea. Eta

hau ez dago lotuta **Yolanda Marrodan** atxalbaltan bizi dena ETBko pantailan agertzearekin. "Bi eta bat" umorezko programa arrakastatsuan extra lanak egin ditu. Horrela hasten da. Eta hau zela lotu herriko apaizaren aitak premio bat irabaztearekin? Ezela ere ez. Baina halaxe da. **Mikel Egizabal** abade laguntzailearen aita den **Pedro Manuel Egizabal** (astegunetan Aretxabaletan bizi dena) 'Quiz' aldizkariko sari baten jabe egin da.

Horrekin inolako zerikusirik barik, **Eguzki Alde** elkartean obretan dabilta. San Blas egunerako akabatzea espero dute, hau da eta euren zaindaria. 5 miloi t'erdi pezetako obrak izan dira, eta bazkide bakoitzak 24.000 pezeta ordaindu behariko ditu bere poltxikotik. Eta azkena ere aurrekoekin inolako zerikusirik barikoa. Hil honen 31n beteko dira 362 urte Aretxabaleta eta Eskoriatza elkarrengandik banatu eta independente bihurtu zirela. Ordurako bazeuden independentistak.

Idazketa egitean konturatu garen moduan, herri honetan ezerk ez dauka ezerekin zerikusirik. New Yorken ere berdina gertatzen da.

## 30 ZAPATUA

- Gaueko 10etan **Mediterraneo** filmea Zaraia Zineman.

## 31 DOMEKA

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan **So-nambuloso** filmea Zaraia Zineman.

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **San Lorentzo**. (Autobusa. Apuntatzeko Arlutzen osteguna baino lehen).

- Preferente mailako futbola: **U.D.A - C.D. trintxerpe**.

## 4 EGUENA

- **Santa Ageda bezpera**.

## 5 EGUAKOTXA

- Arratsaldeko 7retan kintoek dantzatuko dute.

## 6 ZAPATUA

- Gaueko 10etan "**El Guardiaespaldas**" filmea Zaraia Zineman.

## 7 DOMEKA

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan "**El Guardiaespaldas**" filmea Zaraia Zineman.

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Teilamendi**.

- Arratsaldeko 7retan kintoek dantzatuko dute.

## ETA GAINERA

- Otsailak 8tik 12ra, arratsaldeko 7retan Zaraia Zineman "**mendiarri buruzko**" diapositiba emanaldiak izango dira, Kutzaren eskutik.



# ARETXAZOKA

## Etxebizitzak

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

- Pisu bat alokatzen da San Milguel auzoan. Interesatuok Herriko Plaza 10era, jantzi den-dara jo edo telefono honetara deitu lan ordutan: 79 59 78.

## Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tnoa: 79 20 64.

- OHOkoko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 68 18.

## Salerosketak

- Pisu bat erosi gura nuke Atxabaltan. Tnoa: 79 17 04.

- Garaje bat salgai Lausita kalean. Tnoa: 79 99 86.

- Garaje bat salgai Iparragirre kalean. Tnoa: 79 20 48.

Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

**ARETXABALETA**  
ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
**ARETXABALETA**

**ZARIAI TABERNA**

**GOIZEKO 5,30etatik**  
**ZURE ZERBITZUAN**

**MANTEKA**  
**ANAIK**

**BASABE**  
**JATETXEA**

**Menu eta afariak**  
industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tnoa: 77 07 94  
79 91 84

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoak: 79 07 34  
79 31.87

**LEIBAR**  
**ARRAINDEGIA**



Mitarte Kalea, 1      Tnoa: 7713 79  
**ARETXABALETA**



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa: 79 79 79



**ARETXABALETA**

**IZOTZ**  
**TABERNA**

MiARTE KALEA  
Tfnoa 79 73 65

**Zatoz ezagutzera**  
**ZUHAITZ**  
**jatetxea!**



**BAZKARI**  
**ETA AFARI**  
**ONENAK!!!**

Tfnoa: 71 41 21

MITARTE  
GARAI  
**JATETXEA**

ARIENTZA

☎ 79 17 51



**INDUSTRIA**  
**HORNIKUNTZAK**  
**URKULU, S.A**

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66



*Bere Bezeroen zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

**KIKKOR**

AKEITEGIA

MITARTE, 3  
Tfnoa: 77 10 81  
**ARETXABALETA**

**IMANOL ARRAZOLA**

**KLINIKA DENTALA**

Otalora, 18 - 1.º D  
Tfnoa: 79 93 55

**LASA AGUILERA**  
**AHOLKULARITZA**

Andra Mari Auzunea  
Tfnoa: 72 29 26

**ARETXABALETA**

**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66



**Kultura sailak**  
**diruz**  
**lagundutako**  
**aldizkaria**



**Gipuzkoako**  
**Foru Aldundiak**  
**diruz lagundutako**  
**aldizkaria**

Eutsi iezaiozu  
hamahiruari.

Edo zuk nahi  
izanez gero...



Eperako Aurrezkia

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA